

EUSKAL HERRIKO FAUNA GIDA

AURKIBIDE OROKORRA

Aitzin-solasa - Claude Dendaletche	10
Sar-hitza	13
Nola egin basapiztien behatzeko?	16
Euskal Herria, basapiztientzat abegikorra den lurralde bat	20
Ur eta hezeguneetako basapiztiak	25
Mendiko erreka txikietatik Bizkaiko Golkoko itsas hondoko fosa abisaletarat...	26
Ur-multzo mota desberdinak...	27
Erreka eta ibaiak, zertaz ari gara?	32
Mendiko iturburutik ibai bokalera: hainbat ur-ekosistema desberdin...	33
Erreka zatien sailkapena, bertan bizi diren arrain moten arabera	33
Arrainen banaketa, aspaldiko denboren edo ... jendeen eraginak	35
Espezie anitz urari lotuak	37
Erreka eta ibaietako ornogabeak	44
Erreka eta ibaietako arrainak	48
Aingira, gainbeheran dagoen migratzailea	52
Lanproiak, arrain bitxi batzuk	53
Amuarrain arrunta	54
Izokin arrunta, Kantauriko isurialdeko erregea...	55
Erreketako oskoldunak	58
Erreketako anfibioak	59
Erreketako narrastiak	63
Igaraba, aurreikusia ez zen itzulera bat...	64
Nolako etorkizuna du Europar bisoiak?	65
Erreka eta hezeguneetako hegaztiak	66
Bizkaiko golkoko zetazeo biodibertsitate ikusgarriaz...	69
Euskal balea, sardako balea	73

Oihanetako fauna	75
Euskal Herria, zuhaitz eta oihan desberdinen lurraldea...	76
Zer da oihan bat?	76
Euskal Herriko ingurune oihantsuak	78
Oihana: ekosistema konplexu bat eta egokitua den fauna bat	82
Oihaneko hegaztiak	84
Oihaneko ugaztunak	92
Oihanetako anfibio eta narrastiak	104
Oihanetako ornogabeak	108
Zuhaitz lepatu oihanak eta pinudi edo eukalipto landaketa intentsiboak	112
Mendialdeko fauna	115
Goratasunaren arabera landaredia	118
Giza jarduerak, ekosistemen eta faunaren aniztasunaren jatorri	119
Mendia: hainbat habitat eta ingurune...	121
Mendian urte osoan bizi diren animaliak	123
Mendian gora eta behera dabiltzan basapiztiak	126
Mendiak, gibelatzen ari zen izotzezko ozeano erdiko babesgunea	128
Mendia, basapizti batzuen azken babesgunea	131
Zer etorkizun hartza eta otsoarentzat Euskal Herrian?	131
Laborari eta harrapari handien arteko elkarbizitza posible ote da Euskal Herrian?	137
Harrapari sarraskijale populazio handien bizilekuak	139
“Kabala sanoak hiltzen dituztela saiek? Ezinezkoa da!”... baina gertatzen da!	142
Sai zuria (<i>Neophron percnopterus</i>)	144
Ugatza (<i>Gypaetus barbatus</i>)	146
Beste harrapari ohargarri batzuk...	149
Hainbat korbido espezie	152
Hegazti migratzaileen pasaleku apartak	157
Ehizaz eta bioaniztasunaz	163
Intsektu batzuek ere migratzen dute...	166

Mendiko bi espezie endemiko: Pirinioetako igela eta Kantauriar sugegorria	167
Mendiko suak eta fauna, zer dakigu?	168
Baserri eremuko basapiztiak	173
Giza jarduerak baldintzatu bioaniztasuna	174
Baserri eremuko fauna	179
Baserri eremuko hegaztiak	179
Guti asko ezagutuak diren ornogabeak...	192
Baserri eremuko haragijale batzuk...	196
Esparru mediterranea, estepa eta basamortu eremuetako fauna	203
Hegazti aniztasun harrigarri bat	204
Eremu idorretako beste basapiztia zenbait	211
Espezie inbaditzaileen gaia	214
Natura babesteko politiken eta haien eraginkortasunaz gogoeta batzuk	219
Azken hitza	225
Hiztegia	227
Izendegia	231
Bibliografia	243

LIBURU HONEN HELBURUAK...

Euskal Herrian milaka basapiztia mota bizi dira, batzuetan gure bizilekue-tatik hurbil... edo bizileku barnean ere. XXI. mendeko gure bizimoldeak noizbait jendeek ingurumenarekin zuten lotura hertsia erabat ahuldu du eta maiz gure zentzumen lokartuek animalia gehienak susmagaitzak bilakarazi dizkigute... Alta, bereziki ikusmena, usaimena eta entzu-mena landuz laster ohar gaitezke gure lurraldea piztia anitzen bizilekua dela.

Jende populazio dentsitate handia bizi den Euskal Herriak bioaniztasun maila oso nabarmena du: eremu biogeografi-ko desberdinen bidegurutzean kokatua izanik, klima ozeanikoa, mediterranea, edo menditarra aurkitzen dira bertan. Espezie migratzaile anitzen pasagune nagusia dugu ere Euskal Herria.

Liburu honen xedea lurralde txiki honetan bizi diren animalia basatiekiko jakin-mina piztea da. Horretarako natu-razale jarrera hartzea proposatzen da. Ikusi edo entzun baino gehiago, basapiz-tiak begiratzea eta aditzea da kontua, non eta nola bizi diren ulertzeko, haiekin partekatzen dugun planeta zati honetako ekosistemetan duten lekua ulertzeko.

Liburu hau ez da hemen ikus daitezkeen espezie guztien katalogo bat. Katalogo hori, egin ezina izateaz gain, zinez asper-garria litzateke. Izan ere, nehorke ez du eza-gutzen Euskal Herrian ager daitezkeen animalia espezie kopuru zehatza. Espezie anitz (bereziki ornogabeak) begi hutsez izendatzea ia ezinezkoa da: horretarako maiz mikroskopioa edo ADN analisiak erabili behar dira... Urtero, zientzialariek arteanezezagunak ziren espezieak deskri-batzen dituzte. Bestalde, genoma aztertze-ko metodo berriekin lehenagoko espezie edo subespezie izendatze anitz zalantzan ezarriak dira... Ondorioz, izendegi eta sail-kapen berriak sortu dira hegazti, arrain, karraskari, narrasti, anfibio eta intsek-tuetan; espezieen izenak aldatu eta heien arteko loturak nahasi dira.

Liburu honetan Euskal Herriko bio-aniztasunaren adibide gisa 150 espezie inguru aipatzea hautatu dut.

Argazkiak, identifikazio irizpideak, basabere horien biologiaren ezaugarri batzuk eta Euskal Herrian duten hedape-na ulertzeko elementuak osatzen dute lan honen oinarria. Funtsean, liburu honen helburuak animalia horietaz gehiago

Jendarteak bere burua zuritzen du Txinako oihanetan bizi diren elefante, tigre

Zientzialariek huts egin dezakete, sinenmenetan lerratzen ahal dira. Hor dira saiek ganadua hiltzen ahal dutela ukatzen duten zientzialariak: hedabideetan haien

Gure kultura “arrazionalak” bultzatzen gaitu inguratzen gaituen guzia antolatze-
ra, sailkatze-
ra, tiraderetan ordenatze-
ra: espezieak eta subespezieak, onuragarriak
edo kaltegarriak, desagertzeko arriskuan
direnak edo arruntak... Baina gure sailka-
tze behar hori bost axola gainerako bizi-

Baina, hasteko, zorrotz ditzagun gure sentsuak, gure ikusmena eta entzumena bereziki, eta abia gaitezen gure inguruko basapiztiekin topo egitera.

Liburu honek basapiztia espezie eta ingurumenaren kontserbatzeko mugimendu batzuei buruzko gogoetak egiten ditu.

Euskal Herria, basapiztientzat abegikorra den lurralde bat

Eragin klimatiko ugariko lurralde menditsu bat

EUSKAL HERRIA

lurralde menditsu txiki bat da,

20.900 km²

inguruko azalerakoa,

iparraldetik hegoaldera **190 km**

eta mendebaldetik ekialdera

230 km inguru dituena.

Ozeano Atlantikoari itsatsirik, Okzitaniako Landesak eta Biarno ditu iparraldeko mugetan. Hegoaldean, Araba eta Nafarroako herrialdeetan, Ebro ibaiak du Errioxa eta Aragoirekin muga egiten. Mendebalean, Bizkaiko mendiak Kantabriar mendikate ondoan dira. Ekialdean, berriz, Nafarroa kasik Añamendi kaskora iristen da, Pirinioetako 2.500 metrotik gorako lehen tontorra.

Lurraldea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duten mendikateek uren banaketa sortzen dute: klima ozeanikoaren menpe den ipar isurialdea alde batetik, eta klima mediterraneoaren menpe dagoen hego isurialdea bestetik. Altueraren eragina ere nabaritzen da mendian.

Iberiar penintsularen eta Europako kontinentearen artean kokatua, Euskal Herria landare eta animalia espezie askorentzat “babesleku berezi” bat izan da Kuaternarioko glaziaraldietan. Gizakiak ere oso aspalditik bizi dira lur hauetan. Harpe eta leizeetako hormetan marraztu edo zizelatu zituzten basapiztia anitz tundra, klima hotz eta lehorreko ingurumenekoak ziren: elur-oreina, errinozero iletsua, haitzu-loetako hartza, mamuta... Berantago, laborariek eta abeltzainek ordezkatu zituzten hasierako ehiztari-biltzaile populazio horiek...

Gaur egun Euskal Herrian bioaniztasun maila oso handia da. Baina ezinezkoa da hemen bizi diren animalia espezie



Adartza (Baxenabarre): Euskal Herria gehienbat lurralde menditsua da.

kopurua zenbatekoa den jakitea. Segurki espezie asko ez dira inoiz ziurtasunez identifikatuak izan eta urtero espezie berriak deskribatzen dituzte zientzialariek, batez ere intsektuak.

200 hegazti espezie inguru, 80 ugaztun inguru (100 baino gehiago zetazeoak kontatuz gero), 27 narrasti, 18 anfibio, 40 bat ur gezatako arrain, milaka intsektu, artropodo eta molusku bizi eta ugaltzen dira Euskal Herrian.

Zergatik halako aniztasuna?

Pirinio-Kantauriar mendikateek bereizten dituzten bi esparru klimatiko nagusien (ozeanikoa eta mediterraneo) ondorioa da hemengo habitat aniztasuna. Nafarroaren hego aldeko Bardeako klima oso lehorretik Atlantikoko kostaldeko klima ozeaniko hezera edo 2.000 metroko mendi klima esparrura igarotzen da ozta

Urakerra (*Notonecta glauca*)



Handiagoak diren uraker (*Notonectus*) intsektuak 1,5 cm luzerako zapaburu edo arrain txikiak harrapa ditzake. Ur zimitz horiek bizkar gainean pasatzen dute bizia: haien sabelaldea da ur azalean ikusten duguna. Beste uretako intsektu batzuek bezala, urakerrak airea arnasten du. Igerilari bikain honek murgildu aitzin elitroen azpian airea biltzen du. Harrapakinak aurreko hankekin harrapatzen ditu eta moko zitzada bortitzez hiltzen ditu, zurrutadaz hustu ahalizateko. Apairua bukatuak, kanpoko azala baizik ez da gelditzen.

dituen bibrazioek harrapari espezie asko erakartzen dituzte. Horien artean dira ur gainean ibiltzen diren *Gerris* (zapatarri edo "ur armiarma") intsektuak. Ahotik hurbil duten guri batek sortu materia hidro-iheskor bati esker lortzen dute ur gainean "ibiltzea". Ornogabe txikiak harrapatzen dituzte.

Odonatoen (mariorratz edo mariburduntziak) bizitza uretan hasten da. Helduak erraz ezagut daitezke: batzuetan elkar ukitzen duten bi begi handi, bi hegaldaren pare eta abdomen luze eta fin bat dira heien ezaugarriak. Kolore bizikoak eta batzuetan 8 cm baino gehiagokoak diren *Odonatoak* aireko ehiztari apartak dira. Hegaldi betean beste intsektu hegalarirek mota anitz harrapatzen dituzte. Landaredian erruten dute eta larbak hilabete gutxiren buruan hazten dira erreka edo putzu hondeotan. Lohi koloreko eta nekez identifika daitezkeen larbak ere harrapari beldurgarriak dira uretan mugitzen diren izaki bizidun txiki guztientzat: landare artean edo lohietan zelatan egoten dira, intsektu, aratxeburu edo zapaburu eta arrainen mugimendu bibrazioek erakarri arte. Harrapakina ehizatze moldea harrigarria dute: beheko baraila desartikulatua bat-batean aitzinerat jaurtikitzen dute, harrapakina harrapatu eta berehala ahoaren heinera ekartzeko. Dozena bat azal aldatze prozesuren ondoren, larbak uretatik atera eta landare batean finkatzen dira, hor berean imago bihurtzeko. Ur bazterreko landaredia miatuz, errazki aurki daitezke



Aeshna caerulea, putzuetan ugaltzen den intsektu haragijale ikusgarri bat.

***Odonato* (mariorratz edo mariburduntzi) larbek uretan harrapakina ehizatze moldea harrigarria dute: beheko baraila desartikulatua bat-batean aitzinerat jaurtikitzen dute, harrapakina harrapatu eta berehala ahoaren heinera ekartzeko.**

imagoak airatzean uzten duen azken azal hutsa. Hauek *Odonato* espezieen identifikatzeko baliagarriak dira, larben anatomia markak guztiak xeheki ageri baitira...

Erreka eta ibaietan ur gezako muskuiluek diren bibrazioak espezie batzuk bizi daitezke. Garai batez arrunta izan zen perla-muskuilua (*Margaritifera margaritifera*) ez da gaur egun Urdazuri eta Bidasoan baizik gelditzen. Bere izenak bitxi

egiteko erabiltzen diren perlak sortzeko duen gaitasuna adierazten du. Biologia ohiz kanpoko du: garatzeko, larbek beharrezkoa dute amuarrain edo izokinaren zakatzetan hilabete zoz iragatea! Nahiz eta oso bizi luze espezie bat izan (zenbait hamarkada, baita mende bat ere), perla-muskuilua desagertzeko zorian dago, gehiegizko arrantza eta erreken ezaugarri fisikoen aldaketaren ondorioz.



Baso-igel gorriak (*Rana temporaria*) negu partean putzuetan erruten du.

tik bereiz daitezke arrabio larbak uhandreenez.

Euskal Herrian Kantauriko isurialdeko hostozabal (harizti, pagadi) oihan hezeetan bizi da, 1.900 metroko goratasuna arte.

Pinudi landaketetan oso arraroa da, eta Nafarroako hegoaldean Ebroko bailarako gunebakan batzuetan baizik ez da aurkitzen.

Baso-igel gorria (*Rana temporaria*) Euskal Herri osoan aurki daiteke, Nafarroako

hegoaldeko herenean izan ezik. Bereziki pagadietan aurkitzen da. Izen zientifikoa ugalketarako arroltze kopuru ikaragarriak aldi baterako putzuetan erruteko ahalmenari lotua da. Espezie honen ugalketa estrategia argiki "r" motakoa da: ahalik eta azkarren ahal bezainbat arroltze erruten ditu, kopuru handi horretatik igel batzuk heldutasunera iritsi eta ugalduko direla "apustu" eginez.

Bere azal leunak kolore marroi gorraila du (luzera 7-9 cm) eta tinpanoa estaltzen duen orban ilun bat du begiaren atzean. Kolore gorrixka horrek udazkenean lurrean diren orbeletarik bereiztea zailtzen du.

Batez ere gaeuz aritzen da, baina ez da arraroa egunez ikustea, jauzi handiak eginez ihesi.

Urritik martxoa-apirila arte aurki daitezkeen igel arroltze metak baso-igel gorriarenak izan ohi dira. Izan ere,

emeak 2-3 mm arteko diametroa duten bi mila arrautza erruten ditu, masa gelatinatsu batean bilduak. Aratxe-buru edo zapaburuak bi edo hiru asteren buruan sortzen dira, uraren tenperaturaren arabera. Hasieran kanpoko zakatzak baliatzen dituzte urpeko oxigenoa eskuratzeko. Lehen transformazio baten ondoren, kanpoko zakatz horiek barnekoak bilakatzen dira. Zapaburuaren ezaugarriek zein espeziekoak diren jakiteko baliagarriak dira. Baso-igel gorriarenak marroi-gorritza kolorekoak dira (luzera: 40 mm), buztan punta borobilarekin. Azken metamorfosia bi edo hiru hilabeteren ondoren gertatzen da. Orduan, 4-5 mm neurtzen duten igel ñimiñoak ikus daitezke, putzu eta erreka ertzetan jauzika. Ugalketak arrakasta izan dezan, ur-putzu edo hezegune horiek ez dira gutienez 3-4 hilabetez lehortu behar.

Baso-igel gorri emeak
2-3 mm arteko
diametroa duten bi
mila arroltze erruten
ditu, masa gelatinatsu
batean bilduak. Aratxe-
buru edo zapaburuak bi
edo hiru asteren buruan
ateratzen dira, uraren
tenperaturaren arabera.



Baso-igel gorria, Kantauri isurialdeko oihanetako igel haundi bat.

Arrano beltza bere lurraldea kementsuki zaintzen duen hegazti bat da eta bikotekidea izan ezik, hurbiltzen den edozeri eraso egiteko gai da: sai arrea, ugatz edo sai zuria... Erasoen ondorioz, inguruan ohantzea egitekotan diren beste harrapari handiak (sai arre, saizuri, ugatz...), maiz, ugaltzeko lekuz aldatzen dira. Aldi berean, arrunta da korbidoak (belatxinga, bele, mika, eta bereziki erroia...) arranoaren kontra oldartzen eta hau lekutu arte larderiatzan ikustea.

Habia adar metaketa handi bat izaten da eta pareta babestu bateko plataforma edo zilo batean kokatzen du, bakanago zuhaitz handi batean. Bikoteak bere eremuan ohantze leku gehiago ditu eta usaian ez du bera bi urtez segidan erabiltzen. Emeak bi eta lau arrautza artean erruten ditu. Kainismoaren eraginez gehienetan txito bakar bat hegaldatzen da (batzuetan bi).

Hainbat korbido espezie

Mendizale guziek ikusi dituzte mendian maiz taldeka dabiltzan hegazti beltz batzuk. Karranka oihu bat entzun eta segidan "belea" deitua izanen da. Karrankaka ari den hegazti beltz espezie bat baino gehiago bada, eta badira ere familia bereko beste espezie beltz batzuk, kantu mota hori batere egiten ez dutenak...



Erroia (*Corvus corax*), maiz belearekin (*Corvus corone*) nahasia den hegazti beltza.

Karrankaka ari den hegazti beltz espezie bat baino gehiago bada, eta badira ere familia bereko beste espezie beltz batzuk, arrunt beste kantu motak dituztenak...

Euskal Herriko arrano beltza populazioa egonkorra da edo pixka bat gora ari da: 2018an 77 bikote ezagutuak ziren, horietatik 6 Iparraldeko Euskal Herrian, 51 Nafarroan eta 17 Araban.

Erroia edo beletzarra (*Corvus corax*) Europako *Passeriforme* handiena da (luzera: 60 cm, hegala-heradadura 1,30 m; pisua: 1,5 kg inguru). Lumadia erabat beltza du, dirdira metaliko urdin-ubelekin. Hegan bere buztan luze kuneiformea eta moko handia ederki agertzen dira. Bere garrasia karranka erlatsu eta labur bat

da, zakur zaunka baten antzekoa izan daitekeena. Bele arruntarena (*Corvus corone*) luzeagoa eta doinu altuagokoa da. Espezie hau erroia baina anitzez txikiagoa da.

Erroiak ikusgarriki adieraz dezake bere presentzia, airean itzuliak egin ez edo tripaz goiti hegan arituz, justu amildu aitzin hegala ukaldi bakar batez berriz zentzu normalerat itzuliz... Elikatzeko oportunista den espezie honek oso fite aurkitzen ditu kabala hilak. Sai arre askoz gutxiago ziren garaietan maiz erroiak ziren abere hil batera iristen

Euskal Herrian oso hedatua da erroia.





Ganga azpibeltza (*Pterocles orientalis*).

Nafarroa eta Arabako Mediterraneoko isurialdean hainbat hegazti ezberdin aurki ditzakegu.



Buztanzuri horia (*Oenanthe hispanica*).

Zozo urdina (*Monticola solitarius*).



Buztanzuri horia (*Oenanthe hispanica*), Nafarroa eta Arabako hegoaldeko eremu idorretan ugaltzen den beste buztanzuri espezie bat da. Migratzailea da eta negua Sahara hegoaldean pasa ondoren, urtero Euskal Herrira itzultzen da.

Zozo urdina (*Monticola solitarius*) zozo beltzaren itxura duen hegazti bat da. Arra urdin ilun kolorekoa da, hegailunagoekin. Emearen lumadia marroi kolorekoa da. Udaberri eta udan, bereziki intsektuak jaten ditu. Horiek hegan harrapatzen ditu, zelatan egon den harri batetik abiatuz eta berriz ber-

tara itzuliz. Armiarmak eta sugandila txikiak ere ehizatzen ditu. Udazkenean eta neguan, batez ere fruitu eta landarez elikatzen da. Gehienbat, Nafarroa eta Arabako Mediterraneoko isurialdeko harkaitz pareta eguzkitsuetan aurkitzen da. Baina Kantauriko isurialdean ere, han edo hemen bizi da, Lapurdi eta Baxenabarreko mendietako pareta bakan batzuetan edo Bizkaia eta Gipuzkoako itsaslabar batzuetan. Zozo urdina oso espezie arraroa da Euskal Herrian, ziurrenik, gehienez, ehun bikotera ez da iritsiko.

Eremu idorretako beste basapiztia zenbait

Etxe edo mendi-untxia (koneju edo lapina) (*Oryctolagus cuniculus*) kilo bat inguruko ugaztun karraskari bat da (luzera: 40-45 cm, 6 cm-ko buztana eta 6-7 cm-ko belarriak barne; pisua: 1-2,4 kg artean). Jatorri mediterranea du eta oso ingurune desberdinetan bizi-tzen ahal da: laborantza alorretan, heskaietan, larre eta sastrakadi eremuetan (oihanak eta 1.000 metrotik gorako eremuak izan ezik). Belarjale honek udaberrian gramineo asko kontsumitzen ditu. Neguan zur ehuneko landare zatiak jaten ditu. Untxiarendako

Mendi-untxia (*Oryctolagus cuniculus*).



AIPAMENA	IZEN ARAUTUA	IPAR EUSKAL HERRIKO IZENA	ORRIALDEA
<i>Accipiter gentilis</i>	Aztore		187 or
<i>Accipiter nisus</i>	Gabirai arrunt		190 or
<i>Acrocephalus paludicola</i>	Ur-benarriz		162 or
<i>Acrocephalus schoenobaenus</i>	Benarriz arrunt		158 or
<i>Acrocephalus sp.</i>	Lezkatoria		158 or
<i>Actitis hypoleucos</i>	Zalduntxo txiki		37 or
<i>Alauda arvensis</i>	Hegatxabal arrunt, Pirripio arrunt	Laudeta	171, 207 or
<i>Alcedo atthis</i>	Martin arrantzale		40 or
<i>Alectoris rufa</i>	Eper gorri	Eper	165 or
<i>Alnus glutinosa</i>	Haltz	Haltz	80 or
<i>Alosa alosa</i>	Kolaka	Kolaka	45 or
<i>Alytes obstetricans</i>	Txantxiku arrunt		60 or
<i>Anas platyrhynchos</i>	Basahate	Basahate	43 or
<i>Anguilla anguilla</i>	Aingira	Aingira	52 or
<i>Anguis fragilis</i>	Ziraun	Ziraun, Sügütsü	199 or
<i>Anthus pratensis</i>	Negu-txirta	Pispita	162 or
<i>Anthus spinoletta</i>	Mendi-txirta	Pispita	171 or
<i>Anthus trivialis</i>	Uda-txirta	Pispita	171 or
<i>Apis mellifera</i>	Erle arrunt	Erle	195 or
<i>Apodemus flavicollis</i>	Sagu lepahori	Basasagu, Sorosagü	102 or
<i>Apodemus sylvaticus</i>	Basasagu	Basasagu, Sorosagü	102 or
<i>Apus apus</i>	Mitxiku beltz	Sorbeltz	160, 182 or
<i>Apus pallidus</i>	Mitxiku arre		182 or
<i>Aquila chrysaetos</i>	Arrano beltz	Arrano	149 or
<i>Ardea cinerea</i>	Koartza hausgara	Koartza, Gillenpeskera	68 or
<i>Ardea purpurea</i>	Koartza gorri		68 or
<i>Arvicola scherman</i>	Mendiko ur-arratoi	Saturdin	124 or

AIPAMENA	IZEN ARAUTUA	IPAR EUSKAL HERRIKO IZENA	ORRIALDEA
<i>Austropotamobius pallipes</i>	Ibai-karramarro arrunt	Karramarro, ekreis	58 or
<i>Balaenoptera acutorostrata</i>	Zere txiki	Balea	71 or
<i>Balaenoptera borealis</i>	Ipar-zere	Balea	71 or
<i>Balaenoptera musculus</i>	Balea urdin	Balea	71 or
<i>Balaenoptera physalis</i>	Zere arrunt	Balea	71 or
<i>Barbastellus barbastellus</i>	Baso-saguzar	Gau ainara, Gaüainera	104 or
<i>Barbatula quignardi</i>	Quignard mazkar	Lotre	40, 51 or
<i>Barbus barbus</i>	Barbo arrunt	Barbo	48, 50 or
<i>Barbus graellsii</i>	Mendi barbo	Barbo	48 or
<i>Bubo bubo</i>	Hontza handi	Mozolo	151 or
<i>Bubulcus ibis</i>	Idi-koartzatxo		43, 68 or
<i>Bufo spinus</i>	Apo arrunt iberiar	Apo	40 or
<i>Buteo buteo</i>	Zapelatz	Buzoka, Apo belatz	160 or
<i>Calandrella brachydactyla</i>	Txoriandre arrunt		206 or
<i>Calandrella rufescens</i>	Txoriandre pispoleta		206 or
<i>Calidris maritima</i>	Txirri ilun		162 or
<i>Calotriton asper</i>	Kalotritoi		38, 62 or
<i>Canis lupus</i>	Otso	Otso	131 or
<i>Capreolus capreolus</i>	Orkatz	Orkatz, Basahuntz	94 or
<i>Cecropis daurica</i>	Enara ipurgorri		164 or
<i>Cerambyx cerdo</i>	Kaprikornio handi	Kaprikornio	109 or
<i>Certhia familiaris</i>	Basoetako gerri-txori	Sagu xori	90 or
<i>Certhia brachydactyla</i>	Gerri-txori arrunt	Sagu xori	90 or
<i>Cervus elaphus</i>	Orein arrunt	Orein	92 or
<i>Chelon labrosus</i>	Hondoetako korroko	Korroko	51 or